



Compartiendo
el viaje 
#sharejourney

Vatikano Hiria, 2017ko ekainaren 27a

Caritaseko lagun agurgarriak:

Zoriontsu naiz, berri onak ditudalako zuentzat: Frantzisko aita santuak 'Bidaian elkarrekin' kanpaina zabalduko du munduan datorren irailaren 27an.

Caritas guztiak gonbidatzen ditugu (parrokietakoak, elizbarrutietakoak eta naziokoak) Frantzisko aita santuari lagundu diezaioten gure kanpaina globala zabaltzen, nor bere herrialdean, egun horretan bertan.

Gure kanpainaren helburua elkartzearen kultura sustatzea da, migratzaileen eta errefuxiatuen joan-etorrien guneak diren komunitateetan, beren helmuga diren eta beren etxeak sortzea erabakitzen duten horietan.

Pertsona multzo handiak lekualdatzen ari diren eta ziurgabetasun handiko une hauetan, gizabanako garen aldetik, gure komunitate eta herrialdeetatik, egin dezakegun galdera garrantzitsuenetako bat hau da: "Uzten al diot beldurrari nire bihotzean sustraitzen, ala itxaropenari nagusitzen?"

'Bidaian elkarrekin' landuz, beldurra uxatzea espero dugu, eta ondo ulertzea zergatik uzten duen hainbeste jende bere etxea historiako une honetan. Komunitateen inspirazio-iturri ere izan nahi dugu, errefuxiatu eta migratzaileekin harremanak izan ditzaten. Argiak distira egitea nahi dugu, eta bidearen buru izan. Emigrazioa antzinako historia da, baina gure kanpainak komunitateei lagundu nahi die emigrazioa begi berriekin eta bihotza zabalik ikusten.


Laudato si entziklikan, Frantzisko aita santuak honela zioen: "Nahikoa da gizaki on bat itxaropena loratzeko!" Imajinatu pertsona bakarra ez, baizik eta erakunde oso bat baldin bada. Eta erakunde bat izan beharrean, 165 erakunde badira, besoak eta bihotzak irekita elkarturik, mundu osoan, maitasunezko eta errukizko giza kate bat osatuz.

Caritas Internationalisek elkartasun- eta maitasun-xede bat du, eta behin eta berriz deitzen digute xede hori betetzera. 2015eko Batzar Nagusian, elkarrekin erabaki genuen gure ahaleginak batu behar genituela kanpaina global batean. Gure iritziz, erakundez osatutako Konfederazio batu baten bidez soilik dugu gauzak aldatzeko botere erreala, elkarri lagunduz, partekatuz. Frantzisko aita santuaren hitzetan: "Gu bat dagoenean, iraultza hasten da".

Gure kanpainak aukera ematen digu zenbait egia gogorarazteko geure buruari eta besteei. Elizak Jainkoaren abegia eskaini behar die migratzaile eta errefuxiatuei. Baina gogoratu behar dugu anfitrioiak ez dela pertsona bat edo herrialde bat. Une honetan, intuizio bibliko sakona berreskuratu behar dugu, eta Jainkoa dela anfitrioiak garbi ikusi. Gainera, gogoan izan behar dugu Kristo babesten dugula adeitasunez, immigrante eta errefuxiatuei gure bihotzak irekitzen dizkiegunean.

Gaur egungo munduan, immigrante eta errefuxiatuek bidaia bat egitera deitzen digute. Caritas Internationalisen izenean, guztiok gonbidatzen zaituztet Bidaian elkarrekin kanpainarekin bat egitera, elkartzearen kulturaren bidez bakearen bidea egin dezagun.

Asmo onez eta Jainkoaren bedeinkapen ugariz,

A handwritten signature in black ink, reading "Luis Antonio J. Card. Tagle". The signature is written in a cursive, flowing style.

Luis Antonio Tagle kardinal jauna

Presidentea

Caritas Internationalis